# ARROTZ / EXTRANJERO /

Joan Fierro



■ **MH + UPV/EHU · 2022-23**

Arte proiektuak ezagutarazteko programa
Programa de difusión de proyectos artísticos

■ **Proiektuaren koordinazioa · Coordinación del proyecto**

Luis Mª Pascual · Centro Cultural Montehermoso Kulturunea
Arantza Lauzirika Morea · Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea
Edurne González Ibáñez · Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea

■ **Komisaritza · Comisariado**

**LEKUTAN Asociación Cultural:** Andrea Estankona · Juan Pablo Orduñez / MawatreS

■ **Erakusketa · Exposición**

**ARROTZ / EXTRANJERO** · Joan Fierro

■ **Data · Fechas**

2023ko martxoaren 10etik apirilaren 16ra
Del 10 de marzo al 16 de abril de 2023

■ **Argitaratzailea · Edita**

© Vitoria-Gasteizko Udala / © Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

■ **Argitalpenaren koordinazioa · Coordinación de la publicación**

Andrea Estankona
Juan Pablo Ordúñez/ MawatreS

■ **Argazkiak · Fotografías**

Joan Fierro
Pablo Otero
Iñaqui Ortega

■ **Testuak · Textos**

Joan Fierro
Iñaki Billelabeitia
Juan Pablo Ordúñez/ MawatreS

■ **Diseinu eta maketazioa · Diseño y maquetación**

Ibon Sáenz de Olazagoitia

■ **Itzulpena · Traducción**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

■ **Inprimategia · Imprenta**

Gráficas Dosbi

■ **ISBN:** 978-84-96845-92-3

■ **LG · DL:** LG G 00148-2023

■ Programa honen katalogo digital guztiak eskuragarri daude **montehermoso.net** webgunean.
■ Todos los catálogos digitales de este programa están disponibles en la web **montehermoso.net**.

**[eu]**

Erakusketa-sorta hau Montehermoso kulturunearen eta EHUko Arte Ederren Fakultatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Erakunde biek harreman emankor bati ekin genion 2012an, Leioako Fakultatean ikasitako artista hasi berrien lana ekoiztera bideratuta.

Harreman horri esker, eta orain artekoan, lehen urratsak eman ahal izan ditu artista gazte andana batek, beren lanak jendaurrean erakusteko bide nekezean.

Proiektua kontu handiz zaindu izanak, proiektuan hobekuntza txikiak pixkanaka txertatzeak, eta, batez ere, formula denboran zehar finkatzeak, faktore horien eraginez, ekimena aukera preziatua bihurtu da hasten ari diren artisten lana erakutsi eta balioesteko, eta baita arte-mintegi eder bat ere gure testuinguru kulturalean.

Hasierako erakusketa kolektiboko formatua banakako lau erakusketakora aldatu zen duela urte gutxi batzuk. Horrek lan hautatuak ardura handiagoz jorratzea eta antolaketa- eta produkzio-lan handiagoa eskatzen du, helburu bakarra delarik artista partaideei beren ahalmenak neurtzeko aukera emankorra eskaintzea.

Aurrerapauso horri esker, ikasturte honetan ere lau artista gaztek beren lana eta obra erakutsi ahal izango dute Montehermoso kulturunean, urte osoan garatuko den ekimen batean, zeinaren bitartez egungo ikerkuntza artistikoaren ikuspegi interesgarri bezain anitza eskainiko den, bai eta erakusketa moldeen eta egungo gizartearekin planteatzen dituzten harremanena ere.

**[es]**

La presente muestra surge de la colaboración entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Ambas instituciones iniciaron en el año 2012 una fructífera relación que articula recursos de cara a la producción de artistas emergentes formadxs en la facultad de Leioa.

Dicha relación ha permitido hasta el momento dar sus primeros pasos a un gran número de artistas en el difícil camino de la exposición pública de sus obras.

Así, el cuidado y las pequeñas mejoras que se han venido introduciendo en el proyecto, pero sobre todo el asentamiento en el tiempo de esta fórmula, ha acabado convirtiéndose en una preciada oportunidad para el arte emergente y en todo un semillero artístico para nuestro contexto cultural.

Lo que venía siendo una exposición colectiva, se transformó hace algunos años, en una serie de cuatro exposiciones individuales, exigiendo para ello una mayor responsabilidad en el abordaje de los distintos proyectos, así como un mayor trabajo organizativo y de producción con el único objetivo de ofrecer un fructífero ensayo de posibilidades para los y las artistas que participan.

Gracias a este paso adelante este curso también, cuatro jóvenes artistas van a desplegar su trabajo y su obra en el Centro Cultural Montehermoso en una experiencia que se desarrollará durante todo el año y que ofrecerá una interesante y diversa panorámica de la investigación artística actual, de sus formas de exhibición y de las relaciones que plantea con nuestra sociedad actual.

# Joan Fierro
Bogotá D.C., 1998

**Biografia**

Joan Fierrok Kolonbiako Unibertsitate Nazionalean eta Malagako Unibertsitatean ikasi zuen Arte Ederren gradua. 2022an, Arte Garaikide Teknologiko eta Performatiboa masterra amaitu zuen. Gaur egun, doktoregaia da EHUn, eta gorputzaren eta irudi infografikoaren arteko erlazioa ikertzen du, adimen artifizialak eragindako inguruneetan.

Bere jardunean, artea ekoizpen biopolitikotzat hartzen du, eta bereziki interesatzen zaizkio gorputza eta haren gainean eraikitzen diren imajinarioak kodetzeko gailuak.

Hainbat erakusketa kolektibotan parte hartu du, Kolonbian zein Espainian. 2016 eta 2022 artean, Bogota, Málaga, Bilbo, Leioa eta Erandion erakutsi zituen bera lanak. 2022an, bigarren saria jaso zuen EIA21 lehiaketan (Erandio). Aurten, Alacanteko Unibertsitateko Museoak (MUA) bideratutako Pluri-identitats III. arte bienalean erakutsiko du bere lana, eta Montehermoso kulturuneak artistaren lehenengo banakako erakusketa hartuko du, “Arrotz” izenburuaren pean.

**Biografía**

Joan Fierro desarrolla el grado de Bellas Artes en la Universidad Nacional de Colombia y la Universidad de Málaga. En 2022 finaliza el máster en Arte Contemporáneo Tecnológico Performativo en la UPV-EHU. Actualmente es doctorando en la UPV/EHU e investiga en torno a la relación entre cuerpo e imagen infográfica en entornos afectados por la inteligencia artificial.

En su hacer entiende el arte como producción biopolítica, por tanto el cuerpo y los dispositivos de codificación de los imaginarios que se ciernen sobre el mismo constituyen el núcleo de su interés.

Ha participado en múltiples exposiciones colectivas en Colombia y España. Entre 2016 y 2022 expone su trabajo entre Bogotá, Málaga, Bilbao, Leioa y Erandio. En 2022 obtiene el segundo premio en el Certamen EIA21 (Erandio). Actualmente expone en la III Bienal de Arte MUA Pluri Identitats (Alicante) y el Centro Cultural Montehermoso acoge Extranjero, la primera exposición individual del artista.

# Arrotz / Extranjero
## Joan Fierro

Zer? Zergatik? Zertarako?
Ekoizpena.

Nire markak neureak al dira?
Ala fabrikarenak dira?

Atmosferan... olioa, ez airea,
Mugimendu bestelako bat, atzerriko
erritmo bat.

Nire markak neureak al dira?
Ala fabrikarenak dira?

Hiriaren poro ernegatuen gainean infinituki, tantaz tanta, trazatzen den marrazki bakan baten milioirena naiz. Ametsak, hitzak, etorkizun egingarri bat sortuz, orain bizigarri bat sortuz.

Barruan daramat denbora.

Amets egiten dut itsas urdinez
mozkortzearekin,
olatu bakoitzean bertigoa eta itsasoko
gatza izatearekin,
betiereko mugimendu horretan
–betiereko bestelakoa–
izan eta bizitzearekin...
asperdura epel batean, zeina ez baita
desilusioa edo etsipena,
ezerezkeria atsegina baizik,
besarkada bat handitasunari.

Hodeia banintz, eguzkiaren besoen bila joango nintzateke, eta betierekoan babestuko. Hodeiak egarri eta asetasuna bihurtzen dituzten urrats etereoen ziklo hautemanezinean.

Itsasoko aparra banintz...
Kolore horia banintz...
Denbora banintz...

Espazio hutsa izan nahiko nuke
eta horrela geratu, gardentasunez jantzia.

¿Qué? ¿Por qué? ¿Para qué?
Producción.

¿Son mis marcas propiamente mías?
o ¿pertenecen a la fábrica?

En la atmósfera aceite... no aire,
Un movimiento otro, un ritmo extranjero.

¿Son mis marcas propiamente mías
o pertenecen a la fábrica?

Soy la millonésima parte de un dibujo único que se traza infinitamente, gota a gota,
sobre los poros exasperados de la ciudad. Produciendo sueños, palabras, un futuro realizable, produciendo un presente habitable.

Llevo el tiempo dentro.

Sueño con embriagarme de azul marino,
ser la sal del mar y el vértigo en cada ola,
ser y habitar en ese eterno movimiento
–eterno otro– eterno...
en un cálido tedio que no es desilusión
ni desesperanza
sino todo grata insignificancia
un abrazo a la inmensidad.

Si yo fuera nube, iría en busca de los brazos del sol, y me acurrucaría en lo perenne. En el ciclo imperceptible de pasitos etéreos que hacen de las nubes sed y saciedad.

Si yo fuera espuma de mar...
Si yo fuera el color amarillo...
Si yo fuera el tiempo...

Me gustaría ser el espacio vacío
y quedarme
así
revestido de transparencia.

en el paso del sol, como sustancia
mínima y gloriosa sobre las calles
estrechas, grises y anodinas,
podemos empezar a
hacer espacio para enumerar
imposibilidades
y enfrentarnos al
vacío, al sublime
que es antesala del acontecimiento,
la mano que agita los dados

Eguzkia kale estu,
gris eta interesgabeen
gainetik igarotzen da, substantzia
minimo eta loriatsu baten
antzera, eta horrek laguntzen digu leku
egiten ezintasunak zerrendatzeko eta
amildegiari, sublimeari
aurre egiteko, gertaeraren
gelaurrea baita,
dadoak astintzen
dituen eskua

# Breves notas alteradas
# Ohar labur aldatuak

Iñaki Billelabeitia

Hamargarren eguna zen. Jendea bizi zen lekura iritsi nintzen. Urrutitik eraikuntzak, eraikinak, kaleak ikusten nituen, argiak itxura uniformea ematen zion herri bat. Laneko arropa jantzi nuen. Lekuz kanpo nengoela sentitzen nuen, baina oinez hasi nintzen, lekua jendez beteta zegoen. Era guztietako pertsonak zeuden, batzuk inguruari axolagabe begira zebiltzan, beste batzuk azkar zihoazen, ez zuten denbora galdu nahi. Argi zegoen leku hartan behar zuenaren bila mugitzen zela jende guztia. Konturatu nintzen gizaki haiek ez zirela ni bezala ibiltzen. Oraindik ez dakit zuek bezalakoa naizen, zuen paperetan halakoa naizela jartzen den.

Eguzkiak distira egiten zuen, eta, ondorioz, nire jantziaren hori beroa are biziagoa zen. Nire asmoa jendea bizi den eremu batean sartzea eta bertan oharkabean pasatzea zela pentsa liteke. Baina poliki-poliki ibiltzea, gainerako biztanleen noranzko berean, baina atzerantz, ez zirudien hori lortzeko modurik onena, ezta arrosa horien petaloak ehuntzen ibiltzea ere. Nolanahi ere, nire lana egiten ari nintzen.

Era el décimo día. Llegué al lugar habitado. De lejos veía construcciones, edificios, calles, una población a la que la luz daba una apariencia uniforme. Me puse la ropa de trabajo. Sentía que estaba fuera de lugar pero comencé a caminar, el lugar estaba lleno de gente. Había personas de todo tipo, algunas que transitaban mientras miraban a su alrededor indiferentes, otras que caminaban a paso rápido tratando de no perder el tiempo. Estaba claro que era un lugar donde todos se movían buscando lo que necesitaran. Reparé en que estos seres humanos no andaban como lo hacía yo. Aun no sé si soy como vosotros, si aparece en vuestros papeles que lo soy.

Brillaba el sol y eso hacía que el amarillo cálido de mi vestimenta fuera aun más intenso. Podría parecer que mi propósito era incorporarme a un área habitada y pasar desapercibido en ella. Hacerlo caminando lentamente en el mismo sentido que el resto de habitantes pero hacia atrás no parecía la mejor forma, tampoco tejiendo pétalos de rosas amarillas. De cualquier modo estaba haciendo mi trabajo.

Nire oharrak berrikusten ditut, batzuetan *still-film* deitzen diete, eta egiaztatzen dut atzerantz doazenak besteak direla. Ez dakit nire txostenaren zati hau orain zuzena den edo atzerantz ibiltzera behartzen nauen zerbait disfuntzionala dagoen. Gainerako oinezkoak atzerantz eta kamera geldoan dabiltza, bideo-teknologiak egiaztatzen duenez. Xehetasun guztiak apuntatzen ditut, eta ikusteko ditudan artxiboak ondo daudela ziurtatzen. Denbora ia gelditu arte prozesatzen duen makina bat baliatuz, saiatzen naiz ulertzen zergatik hartzen duten gainerakoek kontrako bidea. Orduan, denak du zerikusia teknologiaren albo-ondorioekin, nolabait denbora-kaosa sortzen ari baita eta, aldi berean, izaki guztien bizitzari eragiten baitio. Argazki txundigarri batzuk egiten ditut, ebidentzia zehatza gordetzeko. Denboraren minutu eta segundotako zenbaketa desagertu egiten da nire oharrak berrikusten ditudanean.

Baina nik badakit ez zela horrela, nire gorputzaren eta erregistratzen zuen kameraren arteko lotura ezarri zenean nire inguruko pertsonak bizkor zebiltzan, eta nik oin bat eta beste bat atzeratzen nuen, astiro eta oso poliki. Konturatu nintzen, kameraren erregistroaren mende jartzean, nire gorputza beste modu batera mugitzen zela (Julio Cortázar gizabanakoak *paseo alternatibo* baterako jarraibide batzuk eskatu izan balizkit bezala). Agian, arazoren bat dago nire erantzun emozionaleko patroiarekin, gailuarekiko loturak eragindako desorekaren bat. Hori gizakion eragozpena izan daiteke, nire zeregina espazio publikoan egindako sartu-irtenak erregistratu eta horien akta jasotzea baita. Eta, batez ere, hiri-ingurune jakin batek ingurune horretan bizi direnen emozioetan, pertzepzioan eta portaeran dituen ondorioak aztertzea. Zeregin psikogeografiko bat esleitu zidaten. Jendea bizi den eremuan barrena nabil, jitoan, ingurunea esploratzeko moduen bila, ezarritako mugimendueta errutina-patroiei erronka joz. Lan hau biztanleengana hurbildu gabe egin dezaket, baina ezin dut guztiz saihestu.

Erregistro horiek egiteko programatu nindutenean, ez nuen pentsatu lana

Reviso mis notas, a veces las llaman *still-films*, y compruebo que quienes van hacia atrás son los demás. No sé si esta parte de mi informe es ahora correcto o si hay algo disfuncional que me hace caminar hacia atrás. El resto de viandantes camina en reverse y a cámara lenta, la tecnología del vídeo así lo confirma. Tomo nota de todos los detalles y me aseguro de que los archivos que tengo para visionar estén bien. Con una máquina que procesa tiempo hasta casi poder detenerlo, trato de comprender por qué el resto toma un camino inverso. Todo, entonces, tiene que ver con el caos temporal ocasionado por los efectos secundarios de una tecnología que afecta, a la vez, a la vida de todos los seres vivos. Tomo algunas fotografías desconcertantes para guardar una evidencia detallada. El recuento del tiempo en minutos y segundos se desvanece cuando reviso mis notas nuevamente.

Pero yo sé que no era así, cuando se estableció el vínculo entre mi cuerpo y la cámara que registraba, las personas a mi alrededor caminaban aceleradas y yo pausada y muy lentamente retrasaba un pie tras otro. Me di cuenta de que, al someterme al registro de cámara, mi cuerpo se movía de manera diferente (como si el individuo Cortázar hubiera reclamado de mí unas instrucciones para un paseo alternativo). Quizás exista algún problema con mi patrón de respuesta emocional, algo que genera un desajuste provocado por el vínculo con el dispositivo. Esto puede ser un inconveniente humano siendo mi tarea la de registrar y levantar acta de las diferentes incursiones en el espacio público. Me asignaron una tarea psicogeográfica. Estudiar los efectos de un entorno urbano determinado por las emociones, la percepción y el comportamiento de quienes lo habitan. Recorro así, a la deriva, el área habitada buscando formas de explorar que desafíen los patrones establecidos de movimiento y rutina. Puedo realizar este trabajo sin necesidad de acercarme a los habitantes pero no puedo evitarlo por completo.

desbideratu zitekeenik lekukoen istorioak entzunez elkarreraginean aritzeraino, eta are gutxiago zer izango zatekeen besteen sentimenduak kontuan hartzea beren lana egiten ari direnean. Erregistroetako irudiei arretaz begira jartzen naizenean, lotura bat sentitzen dut, pantailaz bestaldetik harrapatzen nauena, eta ezin naiz hortik aldendu. Ez dut uste kontakizun gisa etorriko denaren espektatiba denik; aitzitik, ikuskapen arretatsuak eskatzen duen kontenplaziozko lasaitasun-sentsazioa da neure burua menderatzen duena. Badirudi lotura horren une bat nahikoa dela, ukitu labur bat, baina hortxe bihurtzen da denbora trinkoa, itsaskorra. Bergson gizabanakoak iraupen deitzen zion.

Eta behaketaren iraupen horretan, batzuetan, sentitzen dut nire auzoaren mira dudala, nire etxearen aurretik igarotzen zen bidearena, non eguzkiaren islak asfalto higatua zilarreztatzen baitzuen eta aldapa gora galtzen baitzen. Umea nintzela han jolasean aritu nintzen ordu guztiak datozkit gogora. Eta ginkgoa, aldaparen beste aldean nabarmentzen zen zuhaitza, non laino zurien horizonte batek orube abandonatuetarantz begiratzen baitzuen. Leku berezia zen, magia-lekua, eta haren oroimenak nostalgia handia sortzen dit. Gainditzen saiatzen naiz, baina min ematen dit.

Jada ez dakit ezarritako programaren arabera ari naizen. Oroitzapen hauek programaren borondatearen aurkakoak al dira? Nire aldetik nolabaiteko erresistentzia detektatzen ari al da programan? Gela ilunean begira jarraitzen dut, kontenplazioan. Ez dirudi agindu zidaten zeregina eraginkorra denik; programatutako psikogeografoa naizen honen presentziak eragiten dituen alterazioak ikusten ditut orain. Aldaketa horiek erresistentzia-ekintza txikietatik datoz, baina ez dut uste programarekin borrokarik egiten dudanik. Nire aurreko lankideari olatuak irakurtzeko zeregina agindu zioten, eta hau esan zidan alde egin zuenean: bertsio hau guretzat sortu dutenek gainerakoak distraitu nahi dituzte, ez besterik.

Cuando me programaron para realizar estos registros no pensé que esto pudiera desviarse hasta llegar al punto de interactuar escuchando historias de los lugareños, y menos aún lo que significaría tener en cuenta los sentimientos de los demás cuando están realizando su trabajo. Cuando me paro a mirar con detenimiento las imágenes de los registros, siento un vínculo que me sujeta leve pero insistentemente y del que no puedo apartarme. No creo que sea la expectativa de lo que vendrá sino, más bien, es la sensación de hechizo que provoca la pantalla el visionado atento, la que me somete. Parece que un momento de este vínculo es suficiente, una breve nota, pero ahí es donde el tiempo se hace denso, pegajoso, dilatado. El individuo Bergson lo llamaba duración.

Ocurre, a veces, en esa breve nota alterada en el tiempo, que extraño mi barrio, el camino que pasaba por delante de mi casa, donde el reflejo del sol plateaba el alquitrán gastado y se perdía cuesta arriba. Pienso en todas las horas de juego que había compartido allí cuando era niño. Y en el ginkgo, el árbol que destacaba al otro lado de la cuesta desde donde las nubes blancas miraban a los solares abandonados. Era un lugar especial, mágico que me provoca añoranza. Intento reponerme pero me duele.

Ya no sé si estoy operando conforme al programa establecido. ¿Son estos recuerdos actos enfrentados a la voluntad del programa?. ¿Se está detectando en el sistema cierta resistencia por mi parte?. Continúo mirando en la sala oscura, contemplando. Ya no parece que la tarea que me encomendaron sea eficaz, ahora veo las alteraciones que mi presencia ocasiona. Breves reacciones que proceden de pequeños actos de resistencia, aunque entiendo que no forcejeo con el programa. Mi anterior compañero que fue asignado a una tarea de lectura de olas me dijo al marchar; aquellos que han creado esta versión para nosotros solo pretenden distraer a los demás.



# Ezer aldatu gabe esku hartzeko beharrari buruz. Eragin eta dena aldatzeko beharrari buruz

# Sobre la necesidad de intervenir sin cambiar nada. Sobre la necesidad de afectar y que lo cambie todo

Juan Pablo Ordúñez / MawatreS

Bidaia itzulera-txartelik gabe hastea. Alde egitea inoiz itzuliko garen jakin gabe. Helmuga bat, helburu bat, maleta jakin bat… izatea. Arropa pixka bat, kamera bat, liburu bat, hortzetako eskuila bat, koadernoa eta ezer gehiago… agian, laguntzen digun bandera bat. Desio bat, zerbait kontatzeko gogoa… baina oso ondo jakin gabe zein izango den benetako ibilbidea. Aurrera egitea, kokalekuak ezagutu eta deskubritzea. Dena delakoagatik atentzioa ematen diguten leku horiek. Hiri-eredu batetik bestera igarotzen diren lekuak. Iragan industriala duten lekuak, gihar itzali batekin bada ere oraindik matxinada arnasten dutenak. Zalaparta eta gatazka soziala nagusi diren lekuak. Leku sinpleak, guk bakarrik ikusten dugunagatik interesatzen zaizkigunak. Ez dira leku nabarmenak. Ez dira bereizten bertan monumentu handiak daudelako, ezta Instagrameko leku perfektuak direlako ere. Guk une batez eta, beraz, betiko habitatuko ditugun tokiak dira.

Besterik gabe egonda egitea, erreferentzia, nahi eta zalantzazko maleta batekin bidaiatzea. Leku horietan esku hartzeko dugun materialik baliotsuena,

Comenzar el viaje sin billete de vuelta. Partir sin saber si un día se regresará. Tener un destino, un objetivo, una maleta concreta… Algo de ropa, una cámara, un libro, cepillo de dientes, el cuaderno y poco más… quizás una bandera que nos acompaña. Un deseo, unas ganas de contar algo… pero sin saber muy bien cuál será el trayecto real. Avanzar, conocer y descubrir las localizaciones. Esos lugares que por alguna razón nos llaman la atención. Lugares en tránsito entre un modelo de ciudad y otro. Lugares con un pasado industrial que con un músculo apagado aún respiran revuelta. Lugares en ebullición y conflicto social. Lugares sencillos que solo nos interesan por lo que solo nosotrxs vemos en ellos… No son lugares destacados. No se caracterizan por ubicar grandes monumentos, ni por ser *spots* perfectos de Instagram. Son lugares que nosotros habitaremos por un momento y, por ende, para siempre.

Hacer solo estando, viajar con una maleta de referencias, deseos y dudas. El material más valioso que tenemos para intervenir en estos lugares es a la vez el más práctico, económico y el que

aldi berean, praktikoena, ekonomikoena eta beti eskura daukaguna da. Gorputza. Gorputzarekin esku hartzea estrategia erraza izango da. Unitate bat emango digu, hizkuntza komun bat eta baliabide-ekonomia bat, edozein kasutan kontrola dezakeguna. Batzuetan, bidaiatzen duen objektua izango da gorputza, eta beste batzuetan, berriz, lan egiteko materiala.

Beharragatik erabakitzen da egitea. Ezagunak gertatzen zaizkigun espazioetan egitea erabakitzen da, hurbilekoak eta etxekoak gertatzen zaizkigunetan. Ez da esparru profesional konkistatu eta zurietatik ihes egiten, besterik gabe bidaia honetan ez dira ohikoak lantoki gisa. Presente daude, baina ez egunerokotasunean. Egunerokotasunean sartzen dira ibiltzea, geure burua defendatzea, geure burua justifikatu beharra, baimenak eskatzea, lan egitea… egunerokotasunean sartzen dira desiratzea eta ezkutatzea, irakurtzea eta korrika egitea, maitasuna eta intolerantzia… afektua, egia eta zalantza. Tresna horiekin ibiltzen gara bidean, urrats bakoitzean marrazten dugun mapa batetik. Eta batzuetan atzera egiten dugu. Batzuetan behin eta berriz igarotzen gara bide beretik. Oinetakoak eranzten ditugu, gure desioa eta gure esperientzia altxatzen ditugu ideologia bihurtuta, eta aurrera egiten jarraitzen dugu. Ibilbideak errepikatuko ditugu edo, besterik gabe, minutu batez ez-leku bateko lubakian babestuko gara. Inori axola ez dion jarrera bat defendatuko dugu, gure bandera eta aberririk gabeko lurralde batekiko

siempre tenemos a mano. El cuerpo. Parecerá una estrategia sencilla la de intervenir con el cuerpo. Nos dará una unidad, un lenguaje común y una economía de medios que podemos controlar sea el caso que sea. El cuerpo será en ocasiones el objeto que viaja y en otras será el material con el que trabajar.

Se decide hacer por necesidad. Se decide hacer en los espacios que nos resultan familiares, los que resultan cercanos y los que conocemos. No se huye de marcos profesionales, conquistados y blancos, simplemente no son comunes como lugar de trabajo en este viaje. Están presentes, pero no en la cotidianidad. En la cotidianidad tenemos el andar, en el defendernos, el tener que justificarnos, pedir permisos, trabajar… en la cotidianidad tenemos el desear y el escondernos, el leer y el correr, el amor y la intolerancia… el afecto, la verdad y la duda. Con estas herramientas caminamos y trazamos el viaje por un mapa que dibujamos a cada paso. Y en ocasiones volvemos atrás. En ocasiones repetimos en bucle el camino. Nos descalzamos, enarbolamos nuestro deseo y nuestra experiencia en forma de ideología y seguimos caminando. Repetiremos trazados o simplemente nos atrincheraremos en un minuto de un no lugar. Defenderemos una posición que a nadie importa como si nuestra bandera y nuestro arraigo a un territorio sin patria dependiera de ello. Un espacio secundario y de tránsito entre dos avenidas principales principalmente llenas de esperanza y conflicto.

sustraitzea horren mende egongo balira bezala. Bigarren mailako espazio bat, iragaitzazkoa batez ere itxaropenez eta gatazkaz beteta dauden bi etorbide nagusiren artean.

Eragina duen esku-hartzeak baliabide gutxi behar ditu, baina adimen eta sentsibilitate handia. Artea bitartekari dela, keinu erraz, sinple eta ausart bati esker egunerokotasunak beste begirada bat eskain diezaioke errealitateari, gure errealitateari.

Ibiltzeko modu bat…

Ibiltzen ikusteko modu bat…

Ibiltzen ikusten irakasteko modu bat…

La intervención que afecta requiere pocos recursos, pero mucha inteligencia y sensibilidad. Un gesto sencillo, simple y audaz puede hacer que la cotidianidad mediada por el arte ofrezca una nueva mirada a la realidad, a nuestra realidad.

Una forma de andar…

Una forma de ver andar…

Una forma de enseñar a ver andar…

ESKU-HARTZEAk, hizkuntza militarretik sortzen den hitza izanik, ez du aldatzea, tartean jartzea edo bitarteko izatea eskatzen. Testuinguruan esku hartzeak testuinguruari ERAGITEA eskatzen du. Egunerokoa etetea gorputz baten presentzia ezohiko eta arrotzarekin. Bidaian nagoela, bizirik nagoela eta hemen nagoela komunikatzeko beharra. Beharrezkoa da arteak ikusten eta begiratzen irakasteko garatu dituen tresna guztiak mahai gainean jartzea, kalera oinutsik atera gaitezen, eta gure gorputza –maletarik eta itzulera-txartelik gabeko bidaiaz betea– erabiltzeak dakarren ekonomiarekin, honako hau esan ahal izateko: hemen nago eta bizirik nago. Zuk jakitea ez da garrantzitsua, baina garrantzitsua da esatea.

INTERVENIR, siendo una palabra que surge del lenguaje militar, no requiere modificar, interponerse o interceder. Intervenir el contexto requiere AFECTAR el contexto. Interrumpir lo cotidiano con la presencia inusual y extraña de un cuerpo. La necesidad es la de comunicar que estoy de viaje, que estoy vivo y que estoy aquí. La necesidad es la de poner encima de la mesa todas las herramientas que el arte ha desarrollado desde su manera de enseñarnos a ver y mirar para que podamos salir a la calle descalzos, y con la economía de utilizar nuestro cuerpo cargado de viajes sin maleta y sin billete de vuelta, para poder decir: estoy aquí y que estoy vivo. No es importante que lo sepas, pero es importante decirlo.


CLUB

# MH 2022-23
# UPV/EHU

**Sala Jovellanos Aretoa**
Arte proiektuak ezagutarazteko programa
Programa de difusión de proyectos artísticos

Programa hau, Arte Ederretako ikasleen proiektuak ezagutarazteko asmoz Montehermoso Kulturuneak eta EHUko Arte Ederren Fakultateak eratu duten lankidetza-hitzarmenaren baitan kokatzen da. Deialdiak duen helburua prestaketa-aldian dauden artisten proiektuak ikusarazi eta ezagutaraztea da, bai eta ekoizpen- eta prestaketa-eremuen artean eztabaida eta trukerako gune bat sortzea ere, hartara artistei eremu profesionalarekin eta testuinguru lokalarekin harreman zuzena osatzen laguntzeko.

Este programa se enmarca en el convenio de colaboración establecido entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para la difusión de los proyectos de alumnado de Bellas Artes. La convocatoria persigue visibilizar proyectos de artistas en fase de formación, así como generar un espacio abierto de debate e intercambio entre el espacio de producción y el formativo, estableciendo un vínculo directo con el ámbito profesional y el contexto local.

■ **ARROTZ / EXTRANJERO • Joan Fierro**
2023ko martxoaren 10etik apirilaren 16ra
Del 10 de marzo al 16 de abril de 2023



montehermoso

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea